



INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Europar Batasun erreala

SVITLANAK ETA OLGAK gazteentzako elkarte bat sortu zuten Europar Batasuneko (EB) *Youth* programan parte hartzeko (egun *Erasmus +*). Programak diru-laguntzak ematen ditu Europako gazte elkar-teekin topaketak antolatzeko. Aitzakia trukaketa kulturala da, hau da, EBk ordaindutako bidaiak eta parrandak herrialde desberdinetako jendearekin. Unibertsitateetan Erasmus egonaldiek duten fama horren muturreko bertsioa litzateke *Youth* programa, ikasketak ez daudelako tartean eta diru asko ematen delako astebete inguruko ekintza bat antolatzeko. Askotan topaketa antolatzen duen elkarteak (harrera herrialdekoak) etekin ekonomikoak lortzen ditu, ekialdeko herrialdeetan diru hori asko izan daiteke beraien maila ekonomikorako. Olgak 23 urte ditu eta elkarerako lan egiten du EBetik jasotako diruari esker, Ukrainako batez besteko soldata bikoiztu egiten du bereak.

EB inperialismo ekonomikorako tresna bat da, asunto militarretan AEBetako maiordomoa eta demokratikoki liliputar bat. Bitxia, munduan zehar demokrazia sustatu nahi omen duen erakunde batek (batzuetan estatu kolpeak babestu arren, Ukrainan bezala) demokrazia dentsitate oso baxua du

Ukrainar gazte hauek ondo erakutsi dute EBko marasmo burokratikoan dirua eskatzeko gaitasuna dutela. Horrelako jendeak izpiritu kritikoa garatzen badu arriskutsuak bilakatu daitezke sistemarako, baina nekez izango dira EBrako, ez beraiek ez eta *Youth* programetan parte hartu duten gazte gehienak ere. Antzekoa esan daiteke Erasmus programetan parte hartu duten ikasleek eta irakasleek. EBk ondo daki non inbertitu dirua, besteak beste, unibertsitateetatik aterako dira biharko agintariak, kazetariak, irakasleak eta intelektual gehienak. Lituaniar unibertsitateko irakasleek soldata oso baxuak dituzte, horregatik, EBko dirua lortzen iaioak dira. Bereziki Erasmus programa

atsegin dute, honi esker astebetez Europako unibertsitate batera bidaiatzeko aukera dute gastu guztiak EBak ordainduta.

Hamarkadak eman ditu EBk intelektual, kazetari, elite eta politikarien kritikarako gaitasuna biguntzen eta europar utopia elikatzen diruaren bitartez. Arrakasta berezia izan zuen Sobietar Batasuna erortzeagatik umezurtz gelditu ziren ezkerreko alderdien artean. AEBetako militarismo eta eskumako politikaren aurrean bazirudien progresista eta demokratikoen EB zalea izatea zela. Baina, Europar utopia hori ez da existitzen, garai batean “sozialismo erreala” esaten zen bezala, bada garaia “EB errealez” hitz egiteko eta ez amesten dugunaz aritzeko soilik.

EB inperialismo ekonomikorako tresna bat da, gai militarretan AEBko maiordomoa eta demokratikoki liliputar bat. Bitxia, munduan zehar demokrazia sustatu nahi omen duen erakunde batek (batzuetan estatu kolpeak babestu arren, Ukrainan bezala) demokrazia dentsitate oso baxua du. Gure politika publiko asko diseinatu eta beste batzuk baldintzatzen ditu, baina, hala ere, europar herritarrok dugun kontrol demokratikoa eskasa eta zeharkakoa da. Erabakiak estatuetako gobernuak hartzen dituzte batzordean eta ministroen kontseiluan, europarrek bozkatu ez ditugun bi erakundeetan.

Politikari “europar zale” gehienek *Europa gehiago* eskatzen dutenean estatuei soberania gehiago kentzea eskatzea dute eta hauek demokratikoak diren heinean, Europa gehiago eskatzean demokrazia gutxiago eta erabakitze esparruak herritarrengandik urruntzea eskatzen dute. Horri erantsi burokrazia eta erabakiak hartzeko garaian dagoen gardentasun falta eta oso ondo ulertzen da zeinen erraza zaien neurri neoliberalak inposatzea. Hauen aurrean, EBtik dirua eta pribilegioak jasotzen ez dituzten klase apaletako jende askok, demokrazia eza eta neurri neoliberalak sufritzen dituzten berberak, beren haserre erakutsi dute abstenituz edo alderdi euroeszeptikoei botoa emanez. Bitartean, ezkerreko politikari askok asaldatu eta beraien elitismotik ez dute ezer ulertu nahi izan. ■

